

## KOSTUEN EGITURA

Edozein produktu aurrera eramateko, gastu jakin batzuk sortzen dira, baina gu gai izan behar gara gastu horiei aurre egiteko.

Kostuen egituraren ezaugarriak hauek dira: kostu finkoak, kostu aldakorak, eskalako ekonomiak eta hedadura-ekonomiak

Cleanwinrob produktua aurrera eramateko, gai izan beharko gara kostu horiek ere aurrera eramaten.

Guk lortu nahi duguna da kostu-egitura ahalik eta murriztuen mantentzea, prezio baxuetan oinarritutako politika komertzialak erabilita, prozesuak automatizatuta eta zerbitzuak masiboki azpi-kontratatuta.

Kostu finkorik ez da ia inoiz egongo, izan ere, bezeroek eskatzen dituzten kantitatearen mende egongo gara denbora guztian, hortaz kostuak noizbehinka aldatuko dira.

Kostu aldakorren aldetik, garraibidea izango da adibide nabariena; enpresa nahiz dendetara produktua eramateko garraibide bat beharko da. Esan beharra dago, denda nahiz enpresetara egin beharreko bidaiak, bezeroak nahi dituzten produktuen kantitatearen arabera izango dela, hau da, hilabete batean enpresa batera berrogeita hamar Cleanwinrob eraman behar badira, furgoneta batekin nahikoa izango da. Aldiz, hilabete batean eskatzen badizkigute laurehun Cleanwinrob, eraikuntza berri bat fabrikatu delako, seguruena kamioi bat behar izatea izango da. Hortaz kostu aldakorra izango da.

Gasolina ere adibide nabarmena izango da, garraibidearekin batera, produktuaren kantitatearen arabera izango delako.

